

ZUMAIA




SORAYA LOPEZ



Harri-garria!

Ez oso aspaldi, itsasoko urek eta bainu beroek oso ezagun egin zuten Zumaia. Orduan bezala, Zumaiak abegitsua izaten jarraitzen du bisitariekin. Zatoz, bizi Zumaia, eta gozatu gure ohiturez, gastronomiaz eta inguruaz. Zumaiartu.

ESKUZABALIK HARTUKO ZAITUGU!




Oinez ibiltzeko herria

ARNAITZ RUBIO APREA



Trena, autobusa nahiz autoa erabiliz iristen bazara, egokiena herria oinez ezagutzea duzu, dena eskura duzu eta. Garraio publikoari esker, Donostiatik edo inguruko beste herrietatik lotura ugari dituzu une oro. Autoz bazatoz, herriko sarreretan doako aparkalekuak dituzu, eta erdigunera berehala iritsiko zara oinez edo itsasontziz. Zeuk aukeratu!



LURRAREN HISTORIA, HARRIZKO LIBURUAN

Dinosaurioen desagertzea, klimaren berotze bortitza... Lurraren historiaren hamaika pasarte harrigarri ezagutzeko modua izango duzu Zumaian. UNESCOren munduko Geoparkeetako bat da Euskal Kostaldekoa, eta haren labarretako haitzetan Lurraren 100 milioi urteko historia idatzita dago, orriz orri. Historiako liburu harrigarri hori ikusteko lekurik ederrenak ere aurkituko dituzu: itsasoaren ondotik doan bidezidorra edota itsaso zabala. Izan ere, Geoparkeko ateetako bat da Zumaia. Flyscha eta ondare geologikoa ezagutzeko modurik onena bisita gidatuak dira. Gainera, beste gai batzuk ere erakusten ditu; beraz, sartu geoparkea.eus webgunean eta hartu hitzordua. Ez zara damutuko!

Ezagunak dira San Telmo ermita eta bertatik ikus daitezkeen ikuspegiak. Hainbat argazkitan ikusiko zenuen. Gordetzen dituen sekretuek txundituta utziko zaituzte. Fosilen gainean ibiliko zara ermitari itzulia emanez gero. Baldosetan jarri arreta!






LUIS FCO LLAVORI

FLYSCHAREN SEKTRETUAK, AGERIAN

Zumaiako eta Geoparkeko kostaldearen eta Deba-Zumaia biotopo babestuaren edertasuna ezagutzeko eta flyschak gordetzen dituen sekretuak argitzeko, **ALGORRI NATURAREN INTERPRETAZIO ZENTROA** duzu. Ikus-entzunezko eta erakusketa bidez, Zumaiako naturagune guztien informazio zehatza jasoko duzu. Bestalde, denboran zeharreko bidaia ere egin dezakezu, oinez edo itsasontziz. Geoparkeko gure giden laguntzarekin flyscharen geruzetan gordetzen diren Lurraren historiako gertakari garrantzitsuen berri izango duzu.



Naturaguneak eta kostalde osoa ezagutzeko, hainbat txango egin ahal izango dituzu. Herrigune bertatik abiatuta, ingurune eta esperientzia ugari dituzu aukeran. Horien artean kokatzen da Artadi auzoa. Pilotari dinastia handi baten sorlekua, bertako hiru hormako frontoian pilotan jokatu, eta goiz edo arratsalde pasa egin ondoren, jaitsi herrira. Santiagoko hondartzan bainua hartu, kirol portuan pasieran ibili... hamaika aukera dituzu!

BESARKATU ITSASOA



Bitxia egingo zaizu, baina hondartzara iristeko aldapa igo beharko duzu. Hori bai, munduko hondartzarik aberatsenera iritsiko zara. Hainbat telesailtako eta filmetako eszenatoki paregabea izan da Itzurun, baina zure bizitzako agertoki ederrena ere izan daiteke. Hondartzako balkoira iristean ezkerrera begiratu; Algorriko labarrak kobazuloz zulatuta dituzu (ea elefanteak ikusten dituzun), eta uretan surflariak olatuekin dantzan arituko dira beharbada. Eskuinean, berriz, haitz **BRANKADA** izango duzu, eta **HARRALDEAN** edo haitzetan herritarrak olagarroaren arrantzan. Horrez gain, urrezko iltzeen bidez adierazten diren denbora mugen estratotipo geologikoek mundu mailako erreferente bihurtzen dute Itzurun.

Inguruko balio paisajistikoari, geologikoari eta biologikoari, itsasoko uraren onurak gehitu behar zaizkie. Lehen, Zestoako bainuetxetik Zumaiara etortzen ziren bainuak hartzera. Egun, hondartza gaineko talasoterapian ere goza dezakezu itsasoko uraz. Labarretan mendi buelta egin ondoren, a zer gozatua!



Zer da uda kantinarik gabe?

ARNAITZ RUBIO APREA



L.M. ALKORTA

Familia osoarekin gozatzeko hondartza da Santiagokoa. Egun-pasa egiteko leku faltarik ez duzu izango hondarretan, bainurako ur lasaiak aurkituko dituzu, eta kirol jarduera ugari egiteko aukera izango duzu. Atzealdean landaredia bitxiz osatutako duna sistema babestua ezagutu ahal izango duzu, panelen bidez interpretatutako ibilbideari esker. Gainaldean, kantina modernoa duzu uda giroaz gozatzeko. Gainera, autoaren beharrik ez duzu izango, herrigunetik itsasontzi zerbitzua eta pasealeku ederra dituzu.



Santiago hondartzaren ondoan "Z Espacio Cultural" museoa kokatzen da. Zuloaga margolariak sortutako espazioan biltzen ziren 98ko belaunaldiko intelektual eta artista nagusiak. Gaur egun, Zuloagak osatutako arte bildumaren zati batez gain, Done Jakue bideko ermita eta arte moderno eta garaikideko erakusketa interesgarria bisitatu daitezke bertan.



MAREA IGOTZEN DENEAN...

Urola ibaiak eta itsasoak bat egiten dute Zumaian, aniztasun handiko natur ingurunea sortuz. Santiagotxikiko eta Beduako **BASADI** edo paduretan hegazti migratzaileak behatzeko aukera duzu; Urola ibaian gora egiten baduzu (piraguan, paddle taulan, edo arraunean), Floresko ontziraleku eraberritutik igaroko zara, Beduako eta Artadiko faunak txundituta utziko zaitu, eta basoak inguratutako eremu bukolikoa aurkituko duzu Oikiako Mantzizidor zubiaren inguruan. Murgildu, beraz, babestutako ingurune ederrean!



ARNAITZ RUBIO / AUREA

Egunean bi aldiz betetzen eta husten den bainuontzia ere badugu: Urola ibaiaren itsasadarra. Arrantzarako, nabigatzeko, igeri egiteko, edota jolasteko ur parke erraldoia da zumaiarrentzat. Hamaika jarduera egiteko aukera duzu bertan. Galdetu, eta animatu!!



JORGE MURGIENDO



ARNAITZ RUBIO APREA

MURGILDU ALDE ZAHARREAN!

San Pedro parrokiaren inguruan eraiki zen Zumaia zaharra. Elizaren inguruko kaleetan sona handiko txokoak ditugu, Sanjuaniturri adibidez. Xarma berdineko beste hainbat leku dugu Zumaian; kalez kale murgildu eta aurkituko dituzu. Zumaiaiko erdigunea izateaz gain, parrokiak herria menperatzen du, eta antzina itsasotik iristen ziren erasoen gotorlekua izan zen. Gotorleku onek bezala, sekretuak gordetzen ditu barnean; Trafalgarko gudaren berri izan dezakezu, eta erretaula Monumentu Nazional izendatuta dago.

Garai batean benta-lekuetan arraina enkantean saltzeko erabiltzen ziren makinetatik, Euskal Herrian geratzen den bakarra Zumaian dago. San Telmo kofradian dago, herriko eraikin historikoan eta sinbolikoenetarikoan. Garai batean arrainaren salmenta nola egiten zuten ikusteko leku bakarra da, beraz, eta bisita gidatu batean ezagutzeko aukera duzu.



JAVIER CARBALLO

EUSKARAZ BIZI DEN HERRI BAT GARA,
ETA MUNDUAN EZ GARA ASKO...
MERKATARIEKIN, HERRITARREKIN...
EGIN EUSKARAZ, ASKO ESKERTUKO
DUGU ZURE EKARPENA!!



Euskarak balio berezia du euskaldunontzat, gure nortasunaren, kulturaren eta historiaren adierazgarri delako. Jatorriaren inguruan oso gutxi dakigun arren, zure esku dago Europako hizkuntza zaharrenetako baten sekretuak ezagutzea. "Euskararen Enigma" bisita gidatuan aurkitu ahal izango dituzu horietako batzuk!




Ongi etorri!



J. CARBALLO

SANTIAGORAKO BIDEAN, KANTAURI ITSASOA

Kostaldeko Done Jakue bidea aukeratzen baduzu, Kantauri itsasoa izango duzu bidelagun. Getariatik bazatoz, herriko ikuspegi panoramiko ederrarekin egingo duzu topo, eta gezi horiei jarraituta, Alde Zaharrean murgilduko zara. Lau mendeko historia duen Karmeldarren edo **MOJAXARREN** komentua izandako eraikinean atsedenaldea hartu ahal izango duzu. Indarberitutakoan, jarraitu lurra amaitzen denera arte, muinoz muino, itsasoa lagun.





JORGE MURGIÓNDO

INDUSTRIA ETA ITSASOA ERE ONDARE

Itsasoari begira bizi den herria izan arren, Zumaiako ekonomiaren motorra industria izan da. Geologiak zerikusi handia izan du horretan. Inguruko lurren ezaugarriek esker, Cementos de Zumaya markarekin hainbat fabrika sortu ziren XIX. mendearan amaieran; horrek ontzigintza eta motorgintza bultzatu zituen, eta gaur egun ondare horren berri jasotzeko ibilbidea aurkituko duzu herrian, panelen bidez. Halaber, itsasoaren ondarea ere nabari daiteke herrian; arrantzaleek utzitako arrastoa handia da, eta San Telmoko kofradian arrainaren salmentarako erabili ohi ziren Euskal Herriko makina bakarra ezagutuko duzu.



Euskal Herrian gelditzen den ontziola bakarrenetakoa dugu Zumaian. Garai batean dozenaka ziren itsasadarrean zehar zeuden ontziola tradizionalak. Egurrezko ontzi zaharren hezurdurak aurkituko dituzu, begiak pixka bat zorroztuaz gero. Kirol portura joanez gero, ontzi zaharren ikuspegi ederra izango duzu itsasbeheran.



ARNAITZ RUBIO APREA

Pintxoz betetako barrak

Olagarro pintxo eta *txakolina*, mesedez! Tabernaz taberna pintxoak dastatzea da Euskal Herrian errotuen dagoen kiroletako bat. Zumaiako tabernetan ere bertako produktuekin egindako pintxo eskaintza zabala aurkituko duzu. Ea zein duzun gustukoena!

Zumaiako herriak gosetea bizi izan zuen garaian, irtenbidea **HARRALDEAN** (gaur egun Biotopo babestua den marearteko zabalgunean, hain zuzen) arrantzatutako itsaskiak izan ziren. Horregatik, Zumaiaren eta olagarroaren arteko lotura estua da. Jakia prestatzeko dauden hamaika errezeten artean, olagarro zopa da berezietakoa. Utzi tentakuluek harrapa zaitzaten!





Zure neurriko ostatuak

Gozatzeko leku zoragarria da Zumaia, baina baita atsedean hartzeko ere. Bikotekidearekin, lagunekin edo familian, zure neurriko ostatua aurkituko duzu: landetxeak, ostatu txikiak, hotelak, apartamentuak, kanpina... Ez duzu hiri handiagoetara jo beharrik, eta gainera, Kantauriko kresal usainarekin esnatuko zara!



BIZIRIK DAGOEN HERRIA

Herriko kaleetan barrena pasiera eginez, bertako produktuak ikusteko, erosteko eta gozatzeko aukera duzu Zumaiaiko saltokietan. Produktu ezin hobeak eta aukera zabala izateaz gain, herriko kaleak giro apartez eta kolorez betetzen dituzte. Beharrezkoa zein kapritxoa izan, ez galdu Zumaian erosteko aukera!





Erro sakoneko ohiturak

Ehun kilo baino gehiagoko harriak jasotzen dituztenak, aizkorarekin zuhaitzen enborrak mozten dituztenak, arraunaz baliatuta trainerua itsasoan hegan jartzen dutenak... Euskaldunok betiko ohiturak mantentzen jarraitzen dugu, betiere festa giroan. Zumaian hainbat festa egun dituzu ondo pasatzeko eta euskal ohiturak ezagutzeko.


- Aste Santua igaro ondoren, arrantzalez jantzen da herria **SANTELMO**ak ospatzeko. Asteburu batekin nahikoa ez, eta errepikatu egiten ditugu...
- Uda hastearekin batera, herriko jai nagusiak izaten ditugu; **SAN PEDRO**ak.
- Abuztuan Oikiaren txanda izaten da, eta auzoa leporaino betetzen da **SAN BARTOLOME** festak ospatzeko.
- Euskal folkloreak eztanda ere abuztuan izaten da, **EUSKAL JAIA**ri esker. Estropadak, sagardoa, eta baserritar jantzitako koadrila andanak aurkituko dituzu.
- Irailean olagarroari gorazarre egiten diogu. **OLARRO EGUNE**an era askotara prestatuta probatu ahalko duzu.





ONDO INGURATUTA

Euskal Herria ezagutzeko atea izan daiteke Zumaia. Autoa hartuz gero, hiriburuak ordubete azpitik dituzu, eta kostaldeko hainbat herri arrantzale eder hamar minutura. Baina zerbait desberdina egin nahi baduzu, barnealdea ezagutzera gonbidatzen zaitugu. Euskal Burdinbidearen museoa, Lili jauregia, Pagoeta parke naturala edota Ekain kobazuloaren erreplika zure zain dituzu.



© ARGAZKIARENA- EKAINBERRI - ARAZI ARANZADI UTE



ZUMAIAKO TURISMO BULEGOA

www.zumaia.eus/turismoa

943-14 33 96

Kantauri plaza 13



Ordutegia:

